



EUSKADI BASQUE COUNTRY

Lanbide Heziketako txapelketa

Euskoskills 2020

I. eranskina: lehiaketaren arauak





1. IRISMENA

Lehiaketa-arau hauen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko Euskoskills lehiaketetan aplikatu behar diren arauak eta irizpideak definitzen dira. Arauok, jakina, Lanbide Heziketako lehiaketetarako ezarrita dauden arauak betetzen dituzte.

Ekitaldi honetan bi lehiaketa egingo dira:

- Lehena 2020ko maiatzaren 14an eta 15ean izango da, I. eranskinean jasota dauden Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta modalitateetan.
- Bigarrena 2020ko azaroan edo abenduan izango da; ezarriko diren modalitate guztiak gune bakar batean egingo dira. Lehiaketen egunak eta modalitateak dagokion unean zehaztuko dira.

2. DEFINIZIOAK

2.1. Batzorde antolatzailea

Euskoskills lehiaketaren antolakuntzaren eta garapenaren arduradun nagusia da batzorde antolatzailea.

Haren eginkizuna izango da, beraz, erabakiak hartzea lehiaketen garapenari eragiten dioten eta lehiaketa-arau hauetan ezarrita ez dauden gaiei buruz.

Honela egongo da osatuta Euskoskillsen batzorde antolatzailea:

- Batzordeburua, zeina Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona izango baita.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzako bi kide, zeinetatik bat idazkari-lanetan arituko baita.

2.2. Lehiakidea

Lanbide Heziketako ikastetxe bat ordezkatzuz lehiaketan parte hartzen duen pertsona da.

2.3. Lehiakidearen tutorea

Lehiakideak zein ikastetxe ordezkatzeko duen, zentro horrek hautatzen du tutorea, lehiakidearen irakasle guztien artetik. Tutoreak lagunduko dio lehiakideari lehiaketan zehar.

Lehiakideak Euskadiko txapelduna izatea lortzen badu, Estatuko lehiaketan parte hartzeko behar duen prestakuntza taxutu eta koordinatuko du tutoreak, dagokion lehiaketako adituen buruarekin batera eta, halakorik badago, enpresa babeslearen laguntzarekin. Hori guztia, ikastetxe ordezkatuaren zuzendaritzak eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ikuskatuko dute.



Tutorea Estatuko lehiaketara joan daiteke lehiakidearekin.

2.4. Batzorde teknikoa

Batzorde teknikoaren buru izango dira Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona, eta Lanbide Heziketako ikastetxeen ordezkari teknikoak.

2.5 Ordezkaritza teknikoa

Ikastetxea ordezkatzeko duen aditu bat izango da ordezkari teknikoa; pertsona hori, gainera, batzorde teknikoko jatorrizko kide izango da.

2.6. Epaimahaia

Lehiaketa bakoitzeko epaimahai bat izendatuko da, zeinak batzorde teknikoaren zuzendaritzapean lan egingo baitu.

2.7. Epaimahaiburua

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak izendatuko du epaimahaiburua.

2.8. Aditua

Adituak epaimahaikide izan behar du, eta zer ikastetxek proposatu duen, ikastetxe horrek izendatuko du lehiaketarako. Haren funtzioa izango da lehiaketaren prestakuntza eta garapena teknikoki bermatzea eta ikaslea prestatzea lehiaketara aurkez dadin.

2.9. Adituen burua

Epaimahaiburuak edo, bestela, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak izendatzen duen aditu bat da; funtsezkoa da haren egitekoa, zeren eta kasuan kasuko lehiaketako gainerako adituen lanaren planifikazioa eta ikuskaritza zuzentzen baititu.

Lehiaketa bakoitzak aditu bat izango du esleituta, eta pertsona horrek harreman zuzena izango du epaimahaiburuarekin; gainera, lehiaketa behar bezala prestatzeko beharrezkoak diren bilerak antolatu eta jakinaraziko ditu, eta arduratuko da bermatzeaz irabazlea dela pertsonarik aproposena Spainskills lehiaketan gure autonomia-erkidegoa ordezkatzeko.

Hauek dira adituen buruaren eginkizunak:

- Kasuan kasuko lehiaketako adituen lana zuzendu, planifikatu eta ikuskatuko du.
- Euskadi ordezkatzeko du Spainskills – Worldskills Spain Lanbide Heziketako lehiaketaren Estatuko epaimahaietan.
- Nazioarteko lehiaketetan Euskadi ordezkatzeko duen txapeldunaren prestakuntza koordinatu eta zuzenduko du.





2.10. Taldeburua («Team Leader»).

Ikastetxe bakoitzak izendatuko du, lehiakideei lehiaketan zehar laguntzeko. Gutxienez taldeburu bat eta gehienez hiru izendatuko ditu ikastetxe bakoitzak. Bakarra izendatuz gero, ikastetxeko aditua izan beharko da.

2.11. Diziiplina-batzordea

Batzorde teknikoak hautatutako bost ordezkari teknikok osatuko dute diziiplina-batzordea; batzordearen lana diziiplina-prozedurak ebaztea izango da, halakorik badago.

2.12. Lehiaketaren formatuak

Lehiaketa-formatu ezberdinak daude: banakako lehiaketak eta taldekako lehiaketa.

Euskal Autonomia Erkidegoan banakako eta taldekako lehiaketak daude. Mekatronikaren kasuan, formatua Lanbide Heziketako bi ikaslek osatutako taldea izango da.

Lehiaketa bakoitzak ezarriko du, premien arabera, zenbat lehia-ordu egongo diren; betiere, gutxienez 8 eta gehienez 12 ordu izango dira.

Lehiakide bat baino gehiago aurkez dezakete ikastetxeek. Hala bada, adituen buruak eta tutore parte-hartzaileek horren berri emango diote batzorde teknikoari, zeinek kasua aztertu eta erabakia jakinaraziko baitio dagokion lehiaketako epaimahaiari.

2.13. Azalpen teknikoak edo TD (*Technical Descriptions*)

Lehiaketa bakoitzaren alderdi tekniko guztiak deskribatzen dituzte: lanbide-profila, probako *Test Projecta* diseinatzeko irizpideak, tailerreko espazioen konfigurazioa, azpiegituren zerranda eta bestelako beharrak; hori guztia lehiaketaren zuzentasuna eta gardentasuna bermatze aldera.

2.14. «Test Project»a edo TP

Test Projecta lehiakideek lehiaketan garatu behar duten proba da, eta haietako bakoitzaren gaitasun profesionalak neurtzeko balio du; horretan oinarrituta, rankinga ezartzen da eta, ondorioz, lehiaketako dominak banatzen dira.

Adituen buruak eta parte-hartzaileen tutoreek erabakiko dute lehiaketaren zer zati gordeko den ezkutuan lehiaketa-egunera arte. Halakoetan, enpresa babeslea arduratuko da lehiaketaren zati hori gordetzeaz eta une aproposan erakustez.

Lehiakideek ezingo dute, inolaz ere, zati hori ezagutu.



3. ARAUAK ETA GINBEHARRAK

3.1. Lehiakidea.

3.1.1 Lehiakideek Euskadi Euskoskillsen edizio bakar batean parte har dezakete.

Lehiakide izateko, nahitaezkoa da Lanbide Heziketako ikasketetan matrikulatuta egotea lehiaketa-urtean (Oinarrizko Lanbide Heziketa edo heziketa-zikloak).

3.1.2 Lehiakideek gehienez 22 urte izango dituzte Worldskills 2021 mundu-lehiaketa egingo den urteko abenduaren 31ean, salbu eta Worldskillsen arauak lehiaketa jakinetarako besterik ezartzen badu.

Mekatronikaren kasuan, 25 urte izango da muga, baldintza berberetan.

3.2. Aditua

3.2.1. Aditua pertsona zintzoa, objektiboa eta bidezkoa izango da, eta lankidetzan jarduteko prest egongo da. Lehiaketaren arauak errespetatuko dituela hitzemango du, eta, arauak hautsiz gero, 7. apartatuan azaltzen diren diziiplina-prozedurak onartuko ditu.

Ezin izango du partekatu behin betiko *Test Projectari* buruzko informaziorik, ez lehiakideekin, ez beste inorekin, batzorde teknikoak berariaz horretarako baimena eman ezean.

3.2.2. Ikastetxe bakoitzak aditu bakar bat izenda dezake lehiaketa bakoitzeko.

3.2.3. Adituek oso ondo ezagutu beharko dituzte lehiaketaren arauak eta azalpen teknikoak.

3.2.4. Lehiaketa hasi baino lehen, adituek *Test Projectaren* azken xehetasunak prestatzen lagunduko diote adituen buruari, eta erabiliko diren ebaluazio-irizpideak zehazten; akordioak aho batez onartuko dira. Iritzi desberdinak badaude, gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, eta, berdinketarik egonez gero, adituen buruak kalitateko botoa izango du. Azken erabakia epaimahaiburuari jakinaraziko zaio.

3.2.5. Adituek lehiakide bakoitzaren *test projectak* ebaluatuko dituzte lehiaketan zehar, objektibotasunez eta zuzentasunez eta adituen buruak eta epaimahaiburuak emandako jarraibideei jarraituz.

3.2.6. Goizero eta arratsaldero, 10-30 minutu bitarteko denbora-tarte bat ezarriko da lehiaketa guztietan, adituek eta lehiakideek zabal hitz egin dezaten.

3.2.7. Aurreko apartatuan ezarritako tarteetatik kanpo, debekatuta dago lehiakideekin komunikatzea edo haiei laguntza ematea *Test Projecta* interpretatzeko, ez bada adituen burua edo lehiakidearen ikastetxekoa ez den aditu bat aurrean dagoela.





3.2.8. Adituak izango dira lehiaketarako dokumentu guztiak ongi betetzearen arduradunak.

3.2.9. Adituek ziurtatu behar dute ekipamenduetako eremu arriskutsuak eta pieza mugikorrek ongi babestuta daudela. Makinetan, segurtasuneko babesgailuetan, ekipamenduetan eta instalazioetan aurkitzen diren akats guztiak konpondu edo zuzendu behar dira.

3.2.10. Adituek ziurtatu behar dute lehiakide guztiek ezagutzen dituztela segurtasun- eta higiene-arau orokorrak eta dagokien lehiaketako erregelamendu espezifikoak.

3.2.11. Adituen ardura da azalpen teknikoak eguneratzea, adituen buruaren zuzendaritzapean.

3.3. Adituen burua

3.3.1. Adituen burua pertsona zintzoa, objektiboa eta bidezkoa izango da, eta lankidetzan jarduteko prest egongo da. Lehiaketaren arauak errespetatuko dituela hitzemango du. Ezin izango du partekatu *Test Projectari* buruzko informaziorik, ez lehiakideekin, ez beste inorekin, batzorde teknikoak berariaz horretarako baimena eman ezean.

3.3.2. Hurrengo lehiaketako adituen burua Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren irizpenen arabera aukeratuko da.

3.3.3. Adituen buruak adituen zereginak planifikatuko ditu.

3.3.4. Lehiaketa hasi baino lehen, adituen buruak, aditu guztien laguntzarekin, *Test Projectaren* azken xehetasunak prestatuko ditu, bai eta ebaluazio- eta puntuazio-irizpideak eta lehiakideentzako argibideak ere.

3.3.5. Lehiaketa hasi baino lehen, epaimahaiarentzat gertatutako instalazioak, makinak, erremintak, materialak, ekipamendua eta tresnak egiaztatuko ditu, aditu guztien eta tailerreko ikuskatzailearen laguntzarekin.

3.3.6. Lehiaketa hasi baino lehen, orobat, lehiakideen izena emateko inprimakiak egiaztatuko ditu, aditu guztien laguntzarekin, batez ere jaiotegunari, jaioterriari eta izenari dagokienez.

3.3.7. Tailerreko ikuskatzailearekin batera, beharrezkoak diren material guztiak eskura daudela ziurtatuko du.



3.3.8. Lehiakideek materialak, makinak, ekipamendua eta tresnak probatzeko astia izango dutela bermatuko du.

3.3.9. Lehiakideek tresnetara ohitzeko eta tresna horiek epaimahaikideen tresnekin alderatu eta kalibratzeko astia izango dutela ziurtatuko du.

3.3.10. Lehiakide guztiei beharrezkoak diren datu teknikoak emango dizkie, eta bermatuko du lehiakide batzuek ez dutela beste batzuek baino informazio tekniko gehiago eskuragarri.

3.3.11. Egunean behin, lehiakide guztien erreminta-kutxak egiaztatzen direla ziurtatuko du.

3.3.12. Lehiakideekin izaten diren harreman guztiak bere bitartez edo epaimahaiburuaren bitartez soilik egiten direla ziurtatuko du beti, lehiaketa hasi baino lehen epaimahaiak besterik adostu ez badu behintzat.

3.3.13. Lehiakide guztien lan-denborak ondo idazten direla bermatuko du, eta geratzen zaien lan-denboraren berri emango die lehiakideei.

3.3.14. Beharrezkoa denean, ordezeko materialak emateaz arduratuko da, eta ziurtatuko du gertaera hori erregistratuta geratzen dela ebaluazio-faseari begira.

3.3.15. Ebaluazioa antolatuko du.

3.3.16. Lehiakideek, lehiaketan zehar, baimendu gabe dauden pertsonekin harremanik ez izateaz arduratuko da.

3.3.17. Ebaluazioaren emaitzak isilpean gordetzeaz arduratuko da.

3.3.18. Ebaluazioaren emaitzak agindu den formatuan emango ditu, eta lehiaketaren informazio-sisteman datu zuzenak sartzen direla zainduko du.

3.3.19. Azalpen teknikoak eguneratuta izateaz arduratuko da.

3.4. Epaimahaia

3.4.1. Lehiaketa bakoitzeko epaimahaia Lanbide Heziketako ikastetxeek proposatutako adituekin eratu da. Batzorde teknikoko kide bat izango da epaimahaiburua.

3.4.2. Lehiaketa hasi baino lehen, epaimahaiak onartuko du zenbat denbora iraungo duen proba bakoitzak.

3.4.3. Epaimahaiak *Test Project*aren azken xehetasunak, ebaluazio-irizpideak, irizpide bakoitzari emango zaion puntuazioa eta lehiakideentzako argibideak prestatuko ditu.



3.4.4. Epaimahaiaren lana izango da bermatzea antolatzaileak emandako materialak soilik erabiltzen direla, azalpen teknikoetan besterik esaten ez bada behintzat.

3.4.5. Adituen buruaren jarraibideei jaramon eginez, epaimahaiak bermatuko du beharrezkoak diren ekipamendua, makinak, erremintak, materialak eta tresnak eskuragarri daudela Euskoskills lehiaketa hasi baino lehen.

3.4.6. Epaimahaiak *test projecten* emaitzak –partzialak zein guztizkoak– ebaluatzeko behar diren ekipamenduak prestatuko ditu. Halaber, bermatuko du lehiakideei nahikoa denbora ematen zaiela beren tresnak epaimahaikoen tresnekin kalibratzeko.

3.4.7. Epaimahaiak arduratuko da lehiakideei *test projectak* eman eta zehaztasunez azaltzen zaizkiela ziurtatzeaz, batez ere alderdi hauei dagokienez:

- Ebaluazio-irizpideak.
- Segurtasun- eta higiene-arauak.
- Lehiakideen ardura, ekarri dituzten ekipamendu eta material osagarriei dagokienez eta segurtasun- eta higiene-arauak betetzeari dagokionez. - Erabil daitezkeen material osagarriak (txantiloiak, planoak/inprimakiak, ereduak, neurgailuak eta abar) eta ekipamendua.

3.4.8. Epaimahaiak azalduko du zehatz-mehatz zer ondorio dakartzan arauak hausteak.

3.4.9. Epaimahaiak erreminta-kutxak egiaztatuko ditu egunean behin, lehiakideek baimenduta ez dagoen ekipamendu edo materialik ez dutela egiaztatzeko.

3.4.10. Epaimahaiak esango du lehiakideak zer ordutan eta zer baldintzatan sartu eta irtengo diren lanlekuetatik.

3.4.11. Epaimahaiak esango du, baita ere, nola eta noiz probatuko diren makinak.

3.4.12. Epaimahaiak bermatuko du lehiakide batzuek ez dutela beste batzuek baino informazio tekniko gehiago eskuragarri.

3.4.13. Epaimahaiak ziurtatuko du lehiakideekin izaten diren harreman guztiek lehiaketaren arauak betetzen dituztela.

3.4.14. Epaimahaiak lehiakide guztien lan-denborak jasoko ditu, eta gelditzen zaien lan-denboraren berri emango die.

3.4.15. Epaimahaiak, beharrezkoa bada eta onartuta badago, ordeko materialak emango ditu, eta gertaera hori erregistratuta utziko du ebaluazio-faseari begira.





3.4.16. Lehiaketan zehar, baimenduta ez dauden pertsonekin elkarrizketak izatea eragotziko du.

3.4.17. Epaimahaiak ebaluazioaren emaitzak isilpean gordeko ditu.

3.5. Epaimahaiburua

3.5.1. Epaimahaiburua batzorde teknikoak izendatuko du.

3.5.2. Epaimahaiburuaren ardura izango da batzorde teknikoak hartutako erabakiak, edo epaimahaiburuaren bileretan hartutakoak, ezartzea. Ongi ezagutu behar ditu kasuan kasuko Euskoskills lehiaketaren arauen xehetasun guztiak, azalpen teknikoak eta ebaluazio-sistema.

3.5.3. Epaimahaiburuak adituen buruarekin eta adituen buruaren laguntzaileekin batera lan egingo du, lehiaketaren profesionaltasuna bermatze aldera. Besteak beste, aholkulari- eta bitartekari-lanak egingo ditu epaimahaiburuak. Lehiaketaren arauak eta erregelamenduak batzorde teknikoaren erabakien arabera ezartzen direla egiaztatuko du.

3.5.4. Arazo bat konpontzeko beharrezkoa denean bilera bat egitea, epaimahaiburua izango da haren buru, bideratzaile gisa.

3.5.5. Euskadi Euskoskills lehiaketak irauten duen bitartean, epaimahaiburuak egunero bilduko dira, batzorde teknikoaren zuzendaritzapean. Epaimahaiburuak epaimahaiburu gisa parte hartuko dute bileretan, ez ordezkari tekniko gisa, eta epaimahaia osatzen duten pertsonen egindako proposamenak edo eskaerak aurkeztuko dituzte.

3.5.6. Epaimahaiak ezin ebatz ditzakeen zalantzak eta arazoak epaimahaiburuaren hurrengo bilerara eramango ditu epaimahaiburuak. Behar izanez gero, adituen burua ere joan daiteke bilera horietara.

3.6. Tailerreko ikuskatzailea

3.6.1. Batzorde teknikoak tailerreko ikuskatzaile gaitu bat aurkez dezake lehiaketa bakoitzerako, epaimahaikideei beren zereginetan lagun diezaien. Tailerreko ikuskatzailea arduratuko da tailerreko instalazioez, materialen prestakuntzaz, segurtasunaz, osasunaz, garbiketaz eta, oro har, txukuntasunaz, eta, gainera, epaimahaikideei beren lanetan lagunduko die.

3.6.2. Tailerreko ikuskatzaileak ezingo du ebaluazio-prozeduran eraginik izan, eta puntuazioak ematen diren bitartean ezingo da bertan egon. Lehiakideekin jarrera neutrala izango du.





3.6.3. Tailerreko ikuskatzaileak lehiaketaren antolakuntzan parte hartu behar izan du, batzorde teknikoaren jarraibideei jarraituz.

Lehiaketaren lekuan egon beharko da, adituek *Test Project*aren prestakuntza-lanei ekiten dieten momentutik, lehiaketak dirauen bitartean eta puntuazio guztiak emanda eta beste adituen eginkizun guztiak amaituta dauden arte.

3.6.4. Tailerreko ikuskatzailea epaimahaiaren mende egongo da. Adituen buruak eta epaimahaiburuak jakinaraziko dizkiote akordio eta inguruabar bereziak eta lehiaketaren nondik norakoak.

3.6.5. Batzorde teknikoak tailerreko ikuskatzailearen laguntzaile bat izenda dezake, eta pertsona horrek arau berberak bete beharko ditu. Tailerreko ikuskatzaile laguntzaileak ukitutako lanlekuetara irispide librea izango du, eta erakustaldi eta ekintza interaktiboetako zereginekin lagunduko du.

3.6.6. Alderdi teknikoei dagokienez, tailerreko ikuskatzaileak adituen buruaren mende egongo dira.

3.6.7. Tailerreko ikuskatzaileen lana izango da ziurtatzea oinplanoan nahikoa leku / bolumen dagoela lanlekuetarako eta ekipamenduetarako. Lanlekuak, azalpen teknikoetan zehazten den bezala, argi natural edo artifizialarekin ongi argiztatuak egon beharko dira, industria-arauen arabera, eta egingo den lan-mota konkreturako egokiak izango dira.

3.6.8. Tailerreko ikuskatzaileek epaimahaiak zehaztutakoaren arabera emango dizkiete materialak lehiakideei.

3.6.9. Ebaluaziorako beharrezkoak diren tresnak eta ekipamendua prestatuko dituzte.

4. LEHIAKETA

4.1. Alderdi orokorrak

4.1.1. Lehiaketa guztiak azalpen teknikoetan agertzen diren xehetasunekin bat burutuko dira, eta haien gauzatzea batzorde teknikoaren eta epaimahaiaren ardura izango da.

4.1.2. Epaimahaikide adituen taldeak egoki jotzen duen aurrerapenez, eta betiere Euskoskills lehiaketa hasi aurretik, epaimahaiburuari lehiaketa guztietarako azken *test project*ak bidaliko zaizkio. *Test Project*aren egitura eta Spainskillsena berdina izango dira. *Test project* guztiak elektronikoki egon beharko dute eskuragarri, artxibo-formatu estandarrean.

4.1.3. Lehiaketek, gehienez, 8 ordu nominal izango dituzte, eta eguneko 4 ordu, gutxienez, eta bi edo hiru egunetan banatu ahal izango dira.



4.1.4. Lanbide Heziketako ikastetxeek gutxienez txapelketa-eguna baino hilabete lehenago erregistratu behar dituzte behin betiko parte-hartzaile guztiak.

4.1.5. Lehiaketan inskribatuta geratuko dira izena emateko inprimakia epearen barruan aurkezten duten ikastetxeetako ikasleak, aurretiaz adierazi diren baldintzak eta, orobat, ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte.

4.2. Lehiakideei emango zaien informazioa

Lehiakideek *Test Projectari* buruzko eta honako gai hauei buruzko informazio zehatza jasoko dute:

- Ebaluazio-irizpideak.
- Segurtasun- eta osasun-arauak.
- Aitorpen bat, non azalduko baita beren erantzukizuna dela ziurtatzea ekarri dituzten makinek eta material osagarriek lehiaketako segurtasun- eta osasun-arauak betetzen dituztela eta adieraziko baita zer material osagarri (txantilo, plano/inprimaki, eredu, neurgailu eta abar) erabil daitezkeen eta zein ez.
- Esango zaie epaimahaiak erreminta-kutxak begiratuko dituela, bai lehiaketa hasi aurretik, bai lehiaketa-egun guztietan, egiaztatzeko ez dagoela baimendu gabeko material edo ekipamendu osagarririk.
- Lehiakideak zer ordutan sar daitezkeen lanlekuan, goiz jota, eta zer ordutan irten, eta zer baldintzatan.
- Lanlekuan sartzeko eta irteteko ordutegia eta baldintzak.
- Zer ordutan eta zer baldintzatan probatuko diren lehiaketan erabiliko diren makinak.
- Arauak ez betetzeak zer ondorio ekar ditzakeen.

4.3. Tailerrean sartzea

Identifikazio egokia (identifikazio-bereizgarria) duten pertsonak soilik sartu ahal izango dira tailerrean.

4.4. Azalpen teknikoak edo TD («Technical Descriptions»)

4.4.1. Lehiaketa guztiak azalpen teknikoetan agertzen diren xehetasunekin bat burutuko dira, eta haien gauzatzea batzorde teknikoaren eta epaimahaiaren ardura izango da.

4.4.2. Euskoskill edizio honetako lehiaketa bakoitzak bere azalpen teknikoa izango du.

4.4.3. Euskoskills lehiaketetako parte-hartzaile guztiek eskuratu ahal izango dituzte azalpen teknikoak. Adituek aldi-aldi eguneratuko dituzte, azken aurrerapen teknologikoak kontuan hartzeko, eta, gero, batzorde teknikoari helaraziko dizkiote. Azalpen teknikoak eguneratzeko eta baliozkotzeko, nahitaezkoa izango da, gutxienez, lehiaketako epaimahai osatzen duten adituen % 80k erabakia sinatzea. Hori horrela gertatuko ez balitz, ordura arteko azalpen teknikoek jarraituko dute indarrean hurrengo lehiaketan.





4.4.4. Azalpen tekniko eguneratuak jasotakoan, batzorde teknikoaren buruak ordezkari tekniko guztien eskura jarriko ditu, batzorde teknikoaren hurrengo bileran onartuak izan daitezten. Lehiaketa babestuaren kasuan, enpresa babesleari dagokio azalpen teknikoa prestatzea eta parte-hartzaile guztien eskura jartzea.

4.4.5. Azalpen teknikoen inguruko erabaki eta gomendioak epaimahaikideen eskura egon behar dute ahalik eta denbora laburrenean, indarrean jarri baino lehen.

4.4.6. Ordezkarri teknikoek ziurtatuko dute lehiakide guztiek jasotzen dituztela azalpen teknikoak eta beharrezkoa den gainerako informazio guztia.

4.4.7. Azalpen teknikoak eguneratzeko edo birsortzeko, Spainskillserako ezarrita dauden azalpen teknikoen eta txantiloï komunaren jarraibide-dokumentua bete beharko da, zeina batzorde teknikoak edukiko baitu.

4.4.8. Azalpen teknikoek ezin dituzte lehiaketaren arauak baliogabetu. Desadostasunak egonez gero, lehiaketaren arauak izango dute lehentasuna.

4.5. «Test project»ak

4.5.1. *Test project*ak prestatzeko oinarria azalpen teknikoak dira, bai eta Spainskills, Worldskills eta Euroskills lehiaketen azken bi edizioetan aurkeztutako *test project*ak ere.

4.5.2. Spainskills, Worldskills eta Euroskillsen antolakuntzak onartu eta erabili duen formatuan prestatzen dira *test project*ak. *Test project* guztiak formatu digitalean egongo dira eskuragarri.

4.5.3. Probako *test project*ak prestatzeko beharrezkoak diren azpiegituren zerrenda tokiko baldintzetara egokituko du antolakuntzak, eta ordezkari teknikoen eskura jarriko du ahalik eta denbora laburrenean, lehiaketa hasi baino lehen.

4.5.4. Lehiaketa guztietarako azken *test project*ak batzorde teknikoari bidali behar zaizkio ahalik eta denbora laburrenean, Euskoskills hasi baino lehen. *Test project* guztiak elektronikoki egon beharko dute eskuragarri, artxibo-formatu estandarrean.

4.5.5. Mekatronikan, *Test Projecta* ez da lehiakideen eskura jarriko, harik eta lehiaketa eta proba bakoitza hasteko une egokia iritsi arte. Beste edozein lehiaketetan ere aplika daiteke metodo edo sistema hori, baldin eta adituen buruak eta kasuan kasuko lehiaketako adituek hala egiteari egoki irizten badiote eta batzorde teknikoari horren berri ematen bazaio.

4.5.6. Behin adituek lehiaketako *Test Projecta* prestatzeko azken lana hasi dutenean, paperak, marrazkiak, ordenagailu eramagarriak, pendriveak eta datuak gordetzeko



bestelako gailuak lehiaketagunean geratuko dira, emandako biltegiatze-unitatean modu seguruan gordeta.

4.5.7. *Test project*etan egin behar diren aldaketak lehiaketa amaitu eta gero egingo dira, eta antolatzaileak emandako denbora guztian zehar indarrean jarrai dezakete.

5. EBALUAZIOA

5.1 Ebaluazio-prozedura

5.1.1. Lehiakideek egindako lanak *test project*etan ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera ebaluatuko dira.

5.1.2. Ebaluazio-irizpideak ezingo dira aldatu batzorde teknikoaren baimenik gabe. Ebaluazio-taldeko adituak honela antolatuko dira, puntuazioak objektiboak izan daitezen: puntuazio objektiborako gutxienez 3 aditu izendatuko dira, eta puntuazio subjektiborako gutxienez 5 (puntuazio subjektiboa ez da aplikatzen mekatronikan). Adituek ezingo dituzte puntuatu beren ikastetxea ordezkatzan duten lehiakideak.

5.1.3. Lehiaketa batean ez badago nahikoa epaimahaiakide aurreko puntuan adierazitako araua aplikatzeko, aditu-kopurua aintzat hartuta egokia den ebaluazio-prozedura bat adostuko du epaimahaiak.

5.1.4. Puntuazio subjektiboa eta objektiboa esleitzeko unean, puntuazio subjektiboa emango da lehenengo, eta gero objektiboa.

5.1.5. Irizpideen alderdi objektibo eta subjektibo bakoitzari emandako puntuazioa gehienez bi zifra dezimaletara biribilduko da.

5.1.6. Azalpen teknikoetan ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko dira probak, lehiaketa guztietan. Lehiaketa bakoitzaren barruan, 100 puntuko eskala oinarri hartuta zehaztuko dituzte adituek lehiaketako emaitzak.

5.1.7. Epaimahaiak puntuazio objektiboko eta subjektiboko inprimaki egokiak erabili beharko ditu, bai eta Euskoskillsen ebaluazio-sistema osatzen duten prozedurak ere. Azalpen teknikoetako irizpide bakoitzeko, puntuatu beharreko irizpidearen alderdi guztiak eta emandako puntuazioaren xehetasunak deskribatu eta gehitu beharko ditu epaimahaiak, puntuazio objektiboko edo puntuazio subjektiboko inprimakian.

5.1.8. Adituek, zeinak epaimahaiak aukeratu baititu, balorazio-orriak sinatuko dituzte, emaitzak zuzenak direla berresteko. Adituen buruak eta, hala badagokio, lehiakidearen ikastetxeko adituak balorazio-orria sinatu beharko dute, balorazioaren emaitza onartzen dutela berresteko.

5.1.9. Lehiakideek egindako lan guztiak giltzapean gorde beharko dira, emaitzak onartzeko ardura duen batzorde teknikoak bilera amaitu arte. Arrazoi teknikoak direla-



eta hori ezinezkoa bada, ebaluazio-inprimakiak betetzeaz gain argazkiak egingo dira, epaimahaiburuen ikuskaritzapean; hartara, zalantzarik egonez gero, argazkien bidez frogatuko da ebaluazioaren zuzentasuna. Argazkiak leku seguruan eta giltzapean gordeko dira.

6. EUSKOSKILLS DOMINAK ETA SARIAK

6.1. Sari-banaketarako zeremonia bakarria antolatuko da: parte-hartzaile guztiak leku eta une berean bilduko dira, beraz.

2020an Euskoskillsen bi edizio egingo direnez, edizio bakoitzak bere sari-banaketa izango du.

Lehenengo edizioko sariak ez dut inolako eraginik izango bigarren edizioko sarietan.

6.2. Urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak emango zaizkie, hurrenez hurren, lehiaketa bakoitzean lehenengo, bigarren eta hirugarren postuak lortzen dituzten lehiakideei. 2020ko bigarren edizioan –eta horretan soilik– kasuan kasuko lehiaketetako puntuaziorik altuena lortzen duten lehiakideek –hau da, urrezko domina eskuratzen dutenek– ordezkatuko dute Euskadi Spainskills estatu-lehiaketan.

6.3. Lehiakide guztiek parte-hartzearen ziurtagiria jasoko dute.

6.4. Batzorde teknikoari emaitzen gaineko apelazioak aurkeztu ahal izango zaizkie, harik eta emaitzak erabakitzeke bilera egin arte. Batzordeak onartu ondoren, emaitzak behin betikotzat joko dira, eta une horretatik aurrera ez da apelazio-eskubiderik egongo.

7. DIZIPLINA-PROZEDURAK

7.1. Sarrera

Diziplina-prozedura ezarriko zaie lehiaketako parte-hartzaileei, baldin eta zintzotasunik ezaz jokatu dutelako zantzuak badaude.

7.2. Prozedura

Ustezko jokabide ez-zintzoaren berri duen pertsona orok eman behar dio horren berri epaimahaiburu bati edo diziplina-batzordearen edo batzorde teknikoaren buruari.

7.3. Salatzailea eta salatua

Fase guztietan, pertsona ukitu guztiak entzungo dira. Beren adituarekin joan daitezke, eta lekukoak dei ditzakete.

7.4. Prozesua

7.4.1. Lehiaketaren arauak ez betetzea.



Baldin eta lehiaketa-arauen ustezko ez-betetzeak edo ustezko jokabide ez-zintzoak lehiaketaren funtzionamenduarekin zerikusia badu, hasiera batean behintzat konponbide lokal bat emango zaio arazoari, ukitutako lehiaketaren eremuan.

Lehiaketa horretako adituen buruak eta epaimahaiburuak konponbide bat bilatuko diote gaiari, salatailearekin eta salatuarekin batera lan eginda. Diziplina-batzordeko kide batek gidatu behar du bilera.

Lehiaketa-arauen ez-betetzeak edo jokabide ez-zintzoak garrantzi handirik ez badu eta alderdi guztiek konponbideari buruzko akordioa egin badezakete, epaimahaiburuak idatzizko txosten labur bat bidaliko dio diziplina-batzordearen buruari.

Konponbide lokalari buruz akordiorik ez badago, edo lehiaketa-arauen ustezko ez-betetzea edo ustezko jokabide ez-zintzoa astuna bada, epaimahaiburuak diziplina-batzordeari helaraziko dio gaia, hark ebazpena eman eta auzia konpon dezan.

Prozeduran nahasita dagoen norbait diziplina-batzordeko kide baten ikastetxe berekoa bada, batzordekide horrek abstenitu egin beharko du.

7.4.2. Diziplina-batzordea

Batzorde teknikoak (epaimahaikideak) izendatuko du diziplina-batzordea, eta Euskoskills lehiaketaren aurretik aukeratutako bost adituk osatuko dute; epaimahaiaren burua izango da diziplina-batzordearen burua.

Erabakiak gehiengoz hartuko dira. Diziplina-batzordeko kideak epaimahai gisa jardungo dira, eta ez aditu gisa.

7.4.3. Apelazioa.

Diziplina-batzordea ez bada ados jartzen, kasua batzorde teknikora (epaimahaikideak) eramango da, hark har dezan azken erabakia. Gertaerak eta eskura dauden dokumentuak aztertu ondoren hartuko du erabakia batzordeak, eta ukitutako alderdi guztiak entzungo ditu. Batzorde teknikoak gehiengoz onartzen duen azken erabakia berehala aplikatuko da.

7.4.4. Aktak eta artxiboak

Batzorde teknikoaren buruak (epaimahaiburuak) fase guztietako erabakiak artxibatuko ditu, eta dagozkion artxiboak bi urtez gordeko direla bermatuko du.

8. LEHIAKIDEENTZAKO JARRAIBIDEAK

8.1. Lehiaketara joan aurretik

Lehiakideek lehiaketaren arauak eta azalpen teknikoak jasoko dituzte adituaren eskutik. Orobat, informazioa jasoko dute aldean eraman behar dituzten erremintei eta



ekipamendu osagarri edo materialei buruz eta ebaluazio-irizpide orokorreari buruz. Epaimahaiak segurtasun-, higiene- eta ingurumen-erregelamenduak eman eta azalduko dizkie.

8.2. Lehiaketa hastear dagoenean

8.2.1. Lehiaketa hasi aurretik, gehienez 2 ordu izango dituzte lehiakideek lanlekua prestatzeko (lehiakide bakoitzari plano-sorten bidez esleituko zaio lanlekua), eta erremintak eta materialak egiaztatzeko eta prestatzeko; adituen eta tailerreko ikuskatzaileen laguntzarekin, aukera franko izango dute makina-erremintetara eta material osagarrietara ohitzeko eta lehiaketan erabiliko dituzten materialekin praktikatzeko. Lehiakideek segurtasun, higiene, justizia eta gardentasuneko kontrol-zerrendetan arreta jartzeko ahaleginak egingo dira. Kontrol-zerrenda horiek azaldu egin behar dira.

8.2.2. Lehiakideak galderak egiteko eskubidea izango du, eta, prestaketa-aldiaren amaieran, ahoz berretsi beharko du guzti-guztiarekin trebatu dela. Behin une horretara iritsita, epaimahaiak lehiakideen datu pertsonalak pasaporteko edo nortasun agiriko datuekin alderatuko ditu (lehiakideek beti ikuskaritzarako prest izan behar dituzte agiriok). Lehiakideek pasaportea edo nortasun agiria aurkeztu beharko dute, beren nortasuna eta jaioteguna balioztatzeko.

8.2.3. Lehiaketa hasi aurretik, lehiakideari jakinaraziko zaio nola burutuko den zehazki lehiaketa, zein izango den ordutegia eta zer ekipamendu partekatu beharko dituen (hala badagokio).

8.2.4. Lehiaketa hastear dagoenean, *Test Projecta*, argibideen materiala eta ebaluazio-sistemari buruzko informazioa emango zaizkio lehiakideari, eta lor daitekeen gehieneko puntuazioa zein den adieraziko zaio. Gutxienez 15 minutu izango dituzte, dokumentuak eta informazioa aztertu eta galderak egiteko –denbora hori ez da zenbatuko lehiaketako denboraren barruan–.

8.2.5. Adituen talde batek erreminta-kutxa guztien edukia aztertuko du zehatz-mehatz. Horrela bermatuko da ezein lehiakidek ez daukala bidegabeko abantailaren bat ekar diezaiokeen elementurik, eta, halakorik badauka, kendu egingo zaio, lehiaketan erabil ez dezan. Azalpen teknikoan adierazitako erreminta bereziak onartuko dira. Hurrengo Euskoskills lehiaketan, erreminta bereziak gehitzeko aukera egongo da. Gainera, adituek egunero aztertuko dituzte erreminta-kutxak.

8.3 Lehiaketan zehar

8.3.1. Lehiakideak izango dira beren erreminta, tresna eta material osagarrien arduradunak. Lehiakideren batek ez badauka erremintaren bat –ahaztu edo galdu egin zaiolako–, adituen buruari esango dio, eta hark, tailerreko ikuskatzailearen bitartez, erabilgarri dagoen ordezkoko materiala emango dio.





- 8.3.2. Neurgailuak epaimahaikoen neurgailuekin kalibratuko dira, akatsik ez egoteko.
- 8.3.3. Lehiakide bakoitzari zenbaki pertsonal bat emango zaio, eta hori erabili beharko du, bai *Test Project*ean, bai ebaluatzeko aurkeztuko dituen dokumentuetan.
- 8.3.4. Adituen buruak agindua eman arte itxaron beharko du lehiakideak, lana hasi eta bukatzeko.
- 8.3.5. Lan-saioretan, ezingo da inolako kontakturik izan beste lehiakide edo gonbidatuekin, adituen buruaren baimena izan ezean. Lehiakideak ezingo du lehiaketagunetik irten, baimenik eta arrazoi legitimorik ez badauka. Gainera, ezingo du kontakturik izan bere ikastetxeko adituarekin, ez lehiaketa hastear dagoenean, ez lehiaketan zehar, ez bada bere ikastetxekoa ez den beste adituren bat aurrean dela. Ezingo da erabili telefono mugikorrik, ezta informazioa partekatzeko bestelako gailu elektronikorik ere.
- 8.3.6. Lehiakideak ordezeko materiala eska dezake, baldin eta hasieran emandako materiala galdu edo hondatu bazaio, baina baliteke puntuak kentzea horregatik. Epaimahaiak erabakiko du, lehiaketa hasi baino lehen, zein izango den puntuak kentzeko eskala.
- 8.3.7. Segurtasun- eta higiene-erregelamenduak zorrotz bete beharko dira, bai eta laburpen teknikoan jasotako edo adituek ezarritako babes-arauak ere. Makinen edo ekipamenduen akatsak berehala emango dira jakitera. Materialak kentzeko lanetan, segurtasun-betaurrekoak jantzita eraman behar dira. Oinetakoek eta jantziek segurtasun- eta osasun-erregelamenduak bete behar dituzte.
- 8.3.8. Lehiakideren bat gaixotu edo lesionatuz gero, adituen buruari esan behar zaio berehala. Epaimahaiak erabakiko du galdutako denbora konpentsatu daitekeen ala ez. Lehiakide batek lehiaketa utzi behar badu gaixo dagoelako, joan aurretik amaituta utzi duen lan guztia puntuatuko zaio. Ahalegin guztiak egingo dira lehiakidea itzultzeko eta, posible bada, galdutako denbora berreskuratuzeko.
- 8.3.9. Jokabide ez-zintzoaren errudun diren lehiakideei, erregelamenduak bete nahi ez dituztenei, lehiaketako kudeaketa-taldearen jarraibideak baztertzen dituztenei edo Euskoskillsen funtzionamendu egokia oztopatzen dutenei 7. apartatuko diziplina-prozedura aplikatuko zaie.
- 8.3.10. Lehiaketa guztietan, 10-30 minutu bitarteko programak ezarriko dira, goizez eta arratsaldez, adituak eta lehiakideak zabal komunika daitezten. Ezingo da erabili telefono mugikorrik, ezta informazioa partekatzeko bestelako gailu elektronikorik ere. Arau honen salbuespenak batzorde teknikoak onartu beharko ditu, kasuan kasuko lehiaketa hasi baino lehen.





8.4. Lehiaketaren ondoren

8.4.1. Lehiaketa amaitutakoan, lehiakideek iritziak eta esperientziak truka ditzakete beste lehiakideekin eta adituekin.

8.4.2. Adituen buruak erremintak eta ekipamenduak enbalatzeko argibideak emango ditu. Lanlekua eta makina-erremintak garbi eta txukun utzi beharko dira.

8.5. Informazioa

Euskoskills lehiaketari buruz lanlekitik kanpo eman behar diren argibideak eta informazioa ikastetxeko adituak emango ditu.

9. Enpresen lankidetzeta edo babesa

Adituen buruek zerrenda bana egingo dute, adierazteko zein izan diren lehiaketan parte hartu duten enpresa laguntzaileak. Aurreko edizioetako enpresa laguntzaileak erreferentzia gisa hartuta, sektoreko beste enpresa batzuekin harremanetan jartzeko ahaleginak egingo dira, zeinei animatuko baitzaie Euskoskillsen edizio honetan eta hurrengoetan parte hartzera.





I. ERANSKINA

Euskoskillsen 2020ko lehenengo edizioaren lehiaketa-modalitateak eta -lekuak (edizio hori 2020ko maiatzaren 14n eta 15ean egingo da).

MODALITATEA	LEKUA - IKASTETXEA
FABRIKAZIO MEKANIKOAREN EREMUA	
Mekatronika	CIFP Miguel Altuna LHII - Bergara
CAD Industria Diseinua	CIFP Bidasoa LHII - Irun
CNC Tornua - Fresaketa	CIFP IMH LHII - Elgoibar
Soldadura	CIFP Aretxabaleta LHII - Aretxabaleta
Industria Kontrola	CIFP Armeria Eskola LHII - Eibar
Elektronika	CIFP Don Bosco LHII - Errenteria
ERAIKUNTZEN ETA INSTALAZIOEN EREMUA	
Iturgintza	CIFP Usurbil LHII - Usurbil
Zurgintza	CIFP Easo Politeknikoa LHII - Donostia
Arotzeria	CIFP Easo Politeknikoa LHII - Donostia
GARRAIOAREN ETA LOGISTIKAREN EREMUA	
Automobilien pintura	CIFP Meka LHII - Elgoibar
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN EREMUA	
IKT Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	CIFP Ciudad Jardín LHII – Vitoria-Gasteiz
3D Animazioa - Jokoak	CIFP Tartanga LHII - Erandio
ZERBITZUEN EREMUA	
Ile-apainketa	CIFP Monte Albertia LHII - Zarautz
Estetika	CIFP Monte Albertia LHII - Zarautz
Sukaldaritza	CIFP Leioako Ostalaritza Eskola LHII - Leioa
Jatetxe- eta taberna-arloko zerbitzua	CIFP Leioako Ostalaritza Eskola LHII - Leioa

